

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Gordexolako Udala****BI-2604 errepidearen bide-segurtasuna hobetzeko jarduketan espedientea dela eta, alkatetzari osoko bilkuraren zenbait eskumen eskuordetzea.**

Udalbatzak 2018ko irailaren 13ko ohiko bilkuran, BI-2604 errepidearen bide-segurtasuna hobetzeko jarduketan espedientea dela eta, Osoko Bilkuraren eskumenak alkatetzari eskuordetzea erabaki zuen jarraian transkribatzen denari jarraituz:

«*Lehenengoa*: BI-2604 errepidearen bide-segurtasuna hobetzeko jarduketei dagokien obraren zati (fase) bakoitzarentzat proiektu independenteen erredakzioa eta lizitazioa baimentzea.

Bigarrena: Jarduketak egikaritzeko presa dela eta, Osoko Bilkuraren eskumenak alkatetzari honako gaien inguruko eskumen guztiak eskuordetzea:

- BI-2604 errepidearen bide-segurtasuna hobetzeko jarduketan I. faseari dagozkion obraren Proiektua eta hala badagokio, horren aldaketak, onestea.
- Zuzendaritza fakultatiboaren zerbitzua kontratatzea, segurtasun eta osasun koordinazioa barne, eta hala badagokio, BI-2604 errepidearen bide-segurtasuna hobetzeko jarduketan I. fasearen Proiektuaren aldaketan erredakzioa.
- BI-2604 errepidearen bide-segurtasuna hobetzeko jarduketan I. faseari dagozkion obrak kontratatzea.
- BI-2604 errepidearen bide-segurtasuna hobetzeko jarduketan II. faseari dagozkion proiektuaren erredakzio zerbitzua kontratatzea, beharrezkoak agiri sektorialak, eta hala badagokio, horren aldaketak barne.

Erabaki honen bitartez emandako eskuordetzea, prozeduraren izapidetzeari loturiko ahalmen guztiak barne hartzen ditu, baina hirugarrenei ukitzen dizkien administrazio egintzak ebazteko ahalmena ere.

Erabaki hau indarrean izango da hartzen den egunaren biharamunetik hasita. Nolanahi ere, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.»

Argitara ematen da guztiak jakin dezaten.

Gordexolan, 2018ko irailaren 27an. — Alkatea, Ángela María Eguía Liñero